



XLV. GUADALUPEKO IGOERA

ARAUDIA

1. ARTIKULUA

Super Amara Bidasoa Atletiko Taldea eskualdeko atletismo elkarteak, Hondarribiko Udalaren laguntzarekin, **Guadalupeko Igoeraren XLV. edizioa** antolatu du 2023ko Irailaren 2an, **goizean**.

Bi lasterketa mota egongo da: Haurrentzako lasterketak Hondarribiko harresiaren inguruan, eta Guadalupeko santutegira igotzen den lasterketa herrikoia Jostaldiko Frontoitik hasita.

2. ARTIKULUA - PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

Lasterketa honetan nahi duen orok parte hartu ahal izango du, kategoria, sexua edo nazionalitatea kontuan hartu gabe eta atleta federatua izan edo ez. Lasterketan parte hartzeko gutxiengo adina 14 urtekoa izango da.

Parte hartzaile kopurua gehienez **500ekoa** izango da.

Lasterketari bakoitzak bere erantzunkizunpean parte hartzen du eta proba egiteko behar besteko maila fisikoa izango du.

3. ARTIKULUA - INSKRIPZIOAK

Inskripzioak uztailaren 12an irekiko dira. Denbora-hartzeak behin erabiltzeko dortsal txiparekin egingo da. Inskripzioaren prezioa aldatu egiten da izen ematea egiten den dataren arabera, alegia:

- 10€. 2022/09/01 baino lehen egineko izen ematea (13:30h baino lehen)
- 15€ Egun bereko izen ematea, irteera puntuan, 2023/09/02an
- **Klubak antolatutako udako 3 lasterketetan (Santiagoko Krosa, Guadalupeko igoera eta Txingudi Korrika) izena emateko aukera dago (BAT BONUS), 23 €-ko kostuarekin. Izena ematean, gainerako lasterketetan izena emateko doako bonua jasoko duzu. **UZTAILAK 24ra ARTE****
- **Klubak antolatutako udako 2 lasterketetan (Guadalupeko igoera eta Txingudi Korrika) izena emateko aukera dago (BAT BONUS), 18 €-ko kostuarekin. Izena ematean, gainerako lasterketetan izena emateko doako bonua jasoko duzu. **UZTAILAREN 24tik AURRERA****

3.1 - BANAKA INSKRIBATZEKO MODUA

Inskripzioa on-line irekiko da helbide honetan: www.kirolprobak.com uztailearen 12tik aurrera eta irailaren 1an (13:30etan) itxiko dira. Proba egingo den egun berean inskripzioa egin ahal izango da irteera puntuan (Jostaldi Frontoian). Pertsonalki, Bidasoa Atletiko Taldearen bulegoan (Leandro Agirretxe 1, Palmera Montero Eraikinean, 2. Solairua, 8. Bulegoa).

4. ARTIKULUA - DORTSALAK JASOTZEA ETA DERRIGORREZKO TXIPA

Irailaren 1a, ostirala, baino lehen eginiko inskripzio haienetzat, lasterkariaren poltsa Bidasoa Atletiko Taldearen egoitzan (Ramon Iribarren kalea 4 zenbakia, behe atzekaldean) jaso ahal izango da, ondorengo egun eta orduetan:

IRAILAREN 1a, OSTIRALA: 18.00 - 20.00

Irailaren 1a, ostirala, baino beranduago eginiko inskripzioetan eta ordura arte jaso ez diren ganointzeko lasterkariaren poltsak, zuzenean lasterketa egunean jasoko dira, irteera gunean.

IRAILAREN 2a, LARUNBATA: 9 – 10.15

NAN txartela aurkeztea derrigorrezkoa izango da dortsal-txipa jasotzeko.

5. ARTIKULUA - LASTERKARIAREN POLTSA

Lasterkari guztiek jasoko duten poltsan ondorengo hauek egongo dira: frogaren dortsala behin erabiltzeko txiparekin eta lasterketako elastiko teknikoak.

6. ARTIKULUA - DESKALIFIKATZEKO ARRAZOIAK

Irteeran eta helmugan kontrolak egongo dira. Lasterkari guztiek derrigorrez alfonbretatik pasa beharko dute. Atleta guztiek irteerako epaileen aginduetara egon beharko dira proba eguneko 18:00ak baino 10 minutu lehenago, ordu horretan irtengo baita.

Probatik automatikoki deskalifikatu egingo dira lasterkari hauek guztiak:

- Ibilbide osoa egiten ez dutenak.
- Dortsaleko publizitatea aldatu edo estaltzen dutenak.
- Beste lasterkari batena den dortsala eta/edo txipa daramatenak.
- Edizio honetarako eman zaion jatorrizko dortsala ez daramatenak.
- Helmugan dortsalik gabe sartzen direnak.
- Epaileen edo antolakuntzako jendearen aginduei kasurik egiten ez dienak.
- Gogoratzen da baita ere erabat debekatuta egongo dela ibilbidean motordun ibilgailuak edo bizikletak ibiltzea antolakuntzakoak ez badira.

7. ARTIKULUA - PARTE HARTZAILEEN ASEGURUA

Antolakuntzak erantzukizun zibileko aseguru poliza bat edukiko du, indarrean dagoen legeriaren arabera. Ofizialki izena eman duten parte hartzaile guztiek istripuen aseguru-poliza baten estaldura izango dute. Proba egite hutsaren ondorioz gerta daitezkeen istripuak estaliko ditu aseguru horrek eta inoiz ez ezkutuko gaixotasun edo akatsa, arduragabekeria, zabarkeria, legeak eta arauak ez betetzeagatik, hala nola lasterketa egingo den tokira joateko eta handik irteteko joan etorrietan sortutako istripuak direnean.

8. ARTIKULUA - MEDIKU LAGUNTZA

Ibilbidean zehar mediku laguntza egongo da. Helmugan ere mediku laguntza egongo da. Antolakuntzak lasterkariei gomendatzen die proba egin baino lehen mediku azterketa bat egin dezatela eta kirol proba egiteak dituen arriskuak onartu ditzala parte hartzaile orok.

9. ARTIKULUA.- SARIAK.

Kategoria bakoitzeko bost lehenak (emakumezkoak eta gizonezkoak) garaikurra izango dute.

Opari ugari zozketatuko dira frogaren partaide guztien artean.

10. ARTIKULUA - ARROPAK JASOTZEKO SERBITZUA

Irteeran ibilgailu bat egongo da nahi duten partaideek euren arropa, motxila edo ekipajea utzi ahal izateko. Helmugan partaide bakoitza bere gauzak jasotzeko arduratuko da.

11. ARTIKULUA - IRUDI ESKUBIDEAK ETA DATUAK LAGATZEA

Parte hartzaile guztiek, inskripzioa egiten duten unetik, Araudi hau onartzen dute eta baimena ematen dute Bidasoa Atletiko Taldeak, bere kasa edo hirugarren erakunderen baten bitartez, inskripzioa egin dutenenen datu pertsonalak eta proban zehar jasotako argazkiak, bideoak eta abar informatikoki erabiltzeko, kirola, sustapena edo alor komertziala soilik izango duen helburua lortzeko. Abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak, izaera pertsonaleko datuak babesteari buruzkoak, ezartzen duen bezala, parte hartzaileak fitxategi horietan sartzeko eskubidea edukiko du bere edukia partzialki edo osorik zuzendu edo ezabatzeko. Eskubide hau erabiltzeko idatziz eskatu beharko du Bidasoa Atletiko Taldeak duen helbidean (Ramon Iribarren kalea, 4 behea, atzealdea. 20304 Irun). Hemen kontuan hartu gabeko guztia IAAF Araudian aztertuko da.